

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2020ko martxoaren 12an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

“Erakunde Adierazpena Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta.

“Emakumearen Nazioarteko Eguna da Martxoaren 8a 1952az geroztik, eta egun horretan emakumeek lan, politika eta gizarte eskubideak aldarrikatzeko historian egin behar izan dituzten grebak gogoratzen ditugu. Lege, gizarte eta kultura aldatetak ekarri ditu borroka feminista horrek, eta, ondorioz, aurrerapauso bat gertatu da berdintasun, justizia eta demokrazia maila handiagoko bizikidetzat bat lortzearen alde.

Aurten, gainera, Bejingeko Ekintza Plataforma onartu zela 25 urte igaro dira, jakinik emakume eta nesken ahalduntzeak zein erabateko parte hartzea bultzatzeak XXI. mendeko eginkizunik garrantzitsuenak konpontzen lagun dezaketela: desberdintasuna, pobrezia, emakumeen eta nesken aurkako indarkeria eta segurtasunik eza.

Denbora luzea igaro den arren, gaur egun, oraindik ere, beharrezkoa da konpromiso publiko eta politikoa, munduko emakumeek eta neskek dagozkien askatasunak erabili ahal izateko, haien eskubide guztiak gauzatzeko aukerak eta baliabideak izan eta diskriminaziorik nahiz indarkeriarik gabeko bizitza bat bizi ahal izateko.

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 12 de marzo de 2020, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“Declaración institucional en relación con el 8 de Marzo, Día Internacional de las mujeres.

“El 8 de marzo es desde 1952, el día Internacional de la Mujer, y conmemoramos las huelgas que a lo largo de la historia han tenido que realizar las mujeres para reivindicar sus derechos laborales, políticos y sociales. Esta lucha feminista ha ido conquistando cambios legales, sociales y culturales que han provocado un avance a favor de una convivencia con mayores cotas de igualdad, justicia y democracia.

Este año además, hace 25 años que se aprobó la Plataforma de Acción de Beijing, sabiendo que el empoderamiento de las mujeres y niñas y el apoyo a su plena participación pueden ayudar a resolver los retos más importantes del siglo XXI, como son la desigualdad, la pobreza, la violencia contra las mujeres y niñas, y la inseguridad.

A pesar del tiempo transcurrido, a día de hoy sigue siendo necesario el compromiso público y político para que las mujeres y niñas del mundo puedan ejercer sus libertades, tener oportunidades y recursos para hacer realidad todos sus derechos y vivir una vida libre de discriminaciones y de violencia.



Denbora luzea eman dugu, baina, oraindik, indarrean dago zainketei buruzko eztabaida, hainbat alderditatik. Batetik, eguneroko bizitzan, gure gizartean zaintzak prekaritatean oinarritzen direlako. Zainketaren beharrei erantzuteko baliabide publikoak urri izatea, txarto deituriko denboren kontziliazioa eta zainketen merkatuko lan baldintza txarrak ditugu aipatu prekaritatea mamitzen direneko egoeretako batzuk.

Horrekin batera, eztabaida politikoaren erdigunean jarri dute gai hori gizarte mugimendu feministek eta ikerlariak. Ekonomia feminista emankorra izan da egungo sistema sozioekonomikoaren eta bizitza sostengagarri izatearen arteko tentsioa ulertzeko bestelako begirada bat ematen duen esparru analitiko bat sortuko bada. Diskurtso politiko bat dakar berarekin esparru horrek, zaintza ebazten duten harremanen errotiko berregituratzearen alde egiten baitu. Horregatik, lehen mailako auzi politikotzat hartu beharra dago, pertsona guztiak arreta jasotzeko eskubidea bermatu eta eskubide hori gizarte justiziaren eta genero justiziaren irizpideen arabera emateko.

Zainketa lanak ikusezin izatea, pobrezia feminizatzea, indarkeria matxistak edo sexu identitateetan edo genero adierazpenetan askatasunik ez egotea dira, besteak beste, gizarte mendekotasunaren zantzu batzuk, bizitzaren eremu guztietan jasoak, eta ezinbesteko bihurtzen du haiei dagozkien espazio guztiak hartzea: kaleak, erakundeak, lan edo ikasketa zentroak, kultura guneak, etab.

Erakundeetan ere defendatu eta eraiki behar dugu feminismoa, egunez egun, eta, horregatik, udal honek berdintasunaren alde dituen politikak berresten ditugu, bai eta emakume guztiak eragiten dieten zeharkako erabakietan parte hartzeko duten eskubidea ere, arreta berezia jarrita egoera ahulenean dauden emakumeengan.

Llevamos también tiempo, pero sigue estando también vigente el debate en torno a los cuidados desde diferentes frentes. Por un lado, en la vida cotidiana se materializa la precariedad con la que se resuelven los cuidados en nuestra sociedad. El déficit de recursos públicos de atención a diferentes necesidades del cuidado, la mal llamada conciliación de los tiempos y las condiciones laborales en el mercado de cuidados son diferentes situaciones que materializan dicha precariedad.

Paralelamente, desde los movimientos sociales feministas y desde la academia se ha puesto esta cuestión en el centro del debate político. La economía feminista ha sido fructífera en la producción de un marco analítico que aporta una mirada nueva para comprender la tensión entre el sistema socioeconómico actual y la sostenibilidad de la vida. Dicho marco lleva consigo un discurso político que aboga por una reestructuración radical de las relaciones en que se resuelve el cuidado, y por ello, debe ser tratado como una cuestión política de primer orden, de manera que se asegure que todas las personas gocen del Derecho a recibir cuidado, y éste sea prestado atendiendo a criterios de justicia social y de género.

La invisibilización de los trabajos de cuidados, la feminización de la pobreza, las violencias machistas o la falta de libertad en las identidades sexuales y/o expresiones de género son algunos de los síntomas de la subordinación social a las que se ven sometidas en todas las esferas de la vida y hace ineludible tomar todos los espacios que también les pertenecen: las calles, las instituciones, los centros de trabajo o estudio, los espacios culturales, etc.

En las instituciones también debemos defender y construir día a día el feminismo, y por ello reafirmamos las políticas de este Ayuntamiento a favor de la igualdad, y del derecho de todas las mujeres a participar en la toma de decisiones que les afecta de manera transversal, y poniendo especial énfasis en las mujeres que se encuentran en una situación de mayor vulnerabilidad.



Aurrerantz egiteko konponbideak: zainketen demokratizaziorantz, herritarrak zaintzeko konpromisoa hartuko duen udalerrri baterantz, zainketen inguruko tokiko ekonomietarantz; azken batean, gizarte antolaketa bidezkoago eta berdinzaleago baterantz, bizitza sostengagarria izatean oinarritua.

Horregatik guztiagatik, udal talde politiko guztiok hau erabaki dugu

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Hona hemen Donostiako Udalaren konpromisoak:

1. Genero harremanak eraldatzen jarraitzea Donostian eta Udalaren bizitzan, bereizkeria mota guztien aurka borrokatuz. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak desagerraraztea eta egiturazko indarkeria horren biktimei erreparazioa eskaintzea. Baldintzak eta aukerak eraikitzea mota guztietako emakumeek ekonomian, gizartean, politikan eta kulturaren esku hartzeko.

2. Udal aurrekontuak generoaren ikuspegitik aztertzea, Udalak hartutako konpromisoen bideragarritasuna bermatuta.

3. Udaleko langileen soldaten egituraren diagnostikoa egitea, generoaren ikuspegitik, soldaten arrakalaren aurkako plan bat indarrean jartzeko, bateragarritasun neurriak aztertu eta gizonek horiek bereganatzea sustatzeaz batera.

4. Donostiako zainketen azterketa egitea, bai esparru publikoan bai pribatuan, genero ikuspegia erabilita. Neurriak jartzea gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna eta horren gizarte onarpena sustatzeko. Udalaren gizarte zerbitzuek bermatu eta haietan lan baldintza duinak bermatzea, batez ere, etxeko etxeko laguntza zerbitzuan.

Soluciones para avanzar hacia una democratización de los cuidados, hacia un municipio que se comprometa con el cuidado de sus vecinas y vecinos, hacia economías locales de los cuidados, en definitiva, hacia una organización social más justa y más igualitaria, basada en la sostenibilidad de la vida.

Por todo ello, todos los grupos políticos municipales adoptamos la siguiente

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, se compromete a:

1.- Seguir transformando las relaciones de género en la vida de la ciudad y del Ayuntamiento, luchando contra todo tipo de discriminación. A erradicar todas las formas de violencia contra las mujeres y reparar a las víctimas de esa violencia estructural. A construir condiciones y oportunidades para la participación económica, social, política y cultural de las mujeres de todas las condiciones.

2.- Realizar un análisis de los presupuestos municipales desde la perspectiva de género, garantizando la viabilidad de los compromisos adquiridos por el Ayuntamiento.

3.- Realizar un diagnóstico de la estructura salarial del personal del Ayuntamiento, desde la perspectiva de género activando un plan contra la brecha salarial y analizando las medidas de conciliación y promocionando su adopción por parte de los hombres.

4.- Realizar un análisis de los cuidados en San Sebastián, tanto en el ámbito público como en el privado, desde una perspectiva de género, y se pondrán en marcha medidas que fomenten el reconocimiento social y la corresponsabilidad de hombres y mujeres en el cuidado, y el desarrollo y la mejora de los servicios sociales municipales, garantizando condiciones laborales dignas, especialmente en el servicio de Ayuda Doméstica.



5.- Udalean IV. Berdintasun Plana egitea, eta neurri eta ekintza hauek jasota, Udalak herritarrekin duen konpromisoa ikusarazteko, Berdintasun Kontseiluan parte hartzen duten elkarte feministek parte hartzen dutelarik.

6. Emakumeen Etxearekiko konpromisoari eustea, hamargarren urteurrena ospatzen baitu aurten.

7. Era berean, martxoaren 8a dela-eta elkarte feministek auzoetan eta Donostian antolatzen dituzten ekitaldi, programa eta mobilizazioekin bat egiteko asmoa piztea Donostiako herritarrengan".
=====

5.- Elaborar el IV plan de Igualdad en el Ayuntamiento, recogiendo estas medidas y acciones visibilizando el compromiso municipal con la ciudadanía, de manera participada con las asociaciones feministas que participan en el Consejo Asesor de Igualdad.

6.- Mantener el compromiso con la Casa de las Mujeres, que este año conmemora su décimo aniversario.

7.- Asimismo, animamos a la ciudadanía donostiarra, a sumarse a los diferentes eventos, programas y movilizaciones que con motivo del 8 de marzo organizan las diferentes asociaciones feministas en los barrios y en la ciudad".
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2020ko maiatzaren 27an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 27 de mayo de 2020

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**